

IRAUNKORTASUNA ERDIGUNEAN

Fagor Taldearen iraunkortasun estrategia da Fagor 2030. Haren bidez, erdigunera ekarri nahi dugu iraunkortasuna, besteren artean, Fagor Taldearen gobernantzan eta estrategian txertatuz. Talde lehiakor, berritzaile eta demokratikoa izan nahi dugu, pertsonak eta planeta zaintzen dituenak, eta bere lurraldearekin konprometituta dagoena. Finean, gizarteak dituen erronkak gureak ere badira, eta, beraz, bat egin gura dugu belaunaldi berrien kezka eta aspirazioekin.

IRAGANETIK ETORKIZUNERAKO JAUZIA EMATEKO SORTUA



Komunitatearen beharrei erantzuteko jaiotzen Fagor duela 65 urte, eta ordutik dihardu etorkizuna hobetzeko lanean. Denetarik ezagutu dugu orain arteko ibilbidean, egokitzen ikasi beharra izan dugu, etengabe hobetzen jarraitzeko.

Hurrengoei kooperatiba hobe bat uzteko konpromisoaz jardun du belaunaldi bakoitzak. Eta, joan ginen, bagoaz eta joango gara aurrera. Konbikzio horrekin, bada, etengabe hari gara gure proiektu kooperatiboa berritzen.

ETORKIZUNEN ERRONKA KONPLEXUEI ERANTZUN EGOKIA EMAN GURAN

Erronkez beterik ikusten dugu etorkizuna. Mehatxu handiak ere baditugu pare pare - klima aldaketa, kasu-, baina esperantzarako zantzurik ere topatzen dugu. Esaterako, halako batek inoiz izan bariko oihartzuna izaten ari da Nazio Batuek sustatutako 2030 Agenda, gizadiarentzat etorkizun justu eta iraunkorra helburu duen egitasmo anbiziotsua. Eta, ildo beretik, hurrengo hamarkadetan egin beharreko bidea marraztu digu Europako Itun Berdeak, beranduenez 2050 urterako Europan klima neutraltasuna lortzeko trantsizio justu bat sustatu helburu duen itunak.

Hurrengo hamarkadetan izango ditugun erronkei arrakastaz aurre egiteko gakoa izango da lankidetzaren iritsi gara honaino, eta lankidetzaren bidez solik egin ahal izango dugu aurrera, horregatik, gure iraunkortasun strategiaren garapenean elkarlanean jardungo dugu izaera ezberdinetako erakundeekin: Mondragon Korporazioarekin, Unibertsitateekin, instituzio publikoekin, eta, nola ez, komunitatearekin.



FAGOR 2030

Etorkizuna hobetzeko lanean



Escanea este código QR para leer el texto en castellano



ARGI DITUGU GURE KONPROMISO NAGUSIAK



1. Gure negozioak eraldatzea, ekonomia digital, deskarbonizatu eta zirkular baten testuinguruan enplegua sortzen segi dezagun. Digitalizazioak eta deskarbonizazioak inpaktu handia izango dute industrian, eta, eszenatoki berrian lehiakorak izaten jarraitu nahi badugu, moldatu beharrekoak ditugu gure negozio eta ekoizpen ereduak zein egungo produktu kartera. Horretarako, funtsezkoa izango dira berrikuntza eta etorkizunari aurre hartzea.

2. Gure gobernantza eredu demokratikoa hobetzen eta garatzen jarraitzea. *Bazkide bat, bozka bat* printzipioan oinarritzen den gobernantza demokratikoa da gure bereizgarri nagusienetakoa. Gure kooperatibek hartua duten dimentsioa eta merkatuaren konplexutasuna aintzat hartuta, gobernantza eredu nahiz gure kultura kooperatiboa hobetzen eta garatzen jarraitu behar dugu, demokratikoa izateaz gain, bidean aurkituko ditugun erronkei eta zailtasunei aurre egiteko eraginkorra izan dadin.



3. Testuinguru egokiak sortzea gure pertsonen euren onena eman dezaten. Gure pertsonak dira gure negozioen lehiakortasunerako ardatz. Hala, pertsonen inplikazioaren eta konpromisoaren mesederako izango diren testuinguruak sortu behar ditugu, talde lana bultzatuz, garapen pertsonal eta profesionala uztartuz, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz eta gure pertsonen osasuna zainduz, besteak beste.

4. Larrildi klimatikoari aurre egiteko gure karbono azterna murriztea, Pariseko akordioan eta Europako Itun Berdean finkatutako helburuekin koherentzian. Arazoaren parte garen heinean, soluzioaren parte izatea ere dagokigu. Larrialdi klimatikoari aurre egin eta belaunaldi berrien etorkizuna ez hipotekatzeko, bere konpromisoak hartu behar ditu bakoitzak, eta, guk ere, gureak hartuko ditugu.



5. Gure lurraldearen eraldaketan inplikatzeari. Komunitatearekin konprometitutako Taldea izan gara sorreratik, eta, etorkizunean ere, gure lurraldeak dituen erronketan inplikatu gara, gainontzeko eragileekin lankidetzan, gizarte autoeratu, inklusibo eta iraunkor bat ipar dugularik.